

3/2016 akta

OSATEK, SA SOZIEATE PUBLIKOAREN ADMINISTRAZIO-KONTSEILUAREN AKTA, 2016KO AZAROAREN 18KOA.

Presidenteak deituta, Administrazio-kontseilua osatu da Osateken egoitzan, Bilboko Bizkaia plazako eraikinean (Urkixo zumarkalea 36, 5. sol.), 2016ko azaroaren 18an, 12:30ean. Jarraian adierazita datoz bertaratu direnen izenak eta gai-zerrenda:

BERTARATUTAKOAK:

PRESIDENTEA

Guillermo Viñegra García jn.

KIDEAK

Jon Etxeberria Cruz jn.

Pedro Hernando Arranz jn.

Fernando Aguirre De Miguel jn.

Lide Amilibia Bergaretxe andrea. Ordezko: Maite Andrés Alvarez andrea.

Susana López Altuna andrea, idazkari lanetan

Bertaratzea ezinezkoa izan zaiela adierazi dute: Antonio Arraiza Armendariz jauna Ignacio J. Berraondo Zabalegui jauna. Gehiengo erlatiboa dago.

Hitza bai, baina botorik gabe bertaratu da bilerara Josu Xabier Llano Hernaiz jauna, Osatek, S.A ko zuzendari gerentea.

GAI-ZERRENDAA:

1. Erresonantzia Magnetikoaren jarduera asistentziala.
2. Telelaguntza-zerbitzua
3. Telemonitorizazioa
4. 2016ko diru-kontuen egoera. 2017ko inbertsioak
5. Kontratazioko barne-jarraibideak eguneratzea
6. Plantilla egituratzea eta lan-poltsaren deialdia egitea.
7. Euskara Plana.
8. Informazio-sistemak eguneratzeko proiektua
9. Pazienteen gogobetetzeari buruzko inkestaren emaitzak aurkeztea.
10. Jarduera zientifikoa
11. Galderak eta eskaerak.

Hasteko, zuzendari-gerenteak hartu du hitza eta gai-zerrendaren beri eman du.

1. Jarduera asistentziala, Erresonantzia magnetikoa:

Zuzendari-gerenteak Lurralde historiko bakoitzeko erresonantzia magnetikoaren jarduera asistentzialaren berri eman du, bereziki Urdulizko Ospitalean dagoen Osatek zentro berriaren eboluzioa aipatu du, hiru hilabete joan dira hasi denetik.

Urtarril eta irail arteko epean jarduera-datu esanguratsuenak hauek dira:

- Irailaren 30ean arreta jaso duten pazienteen kopurua, zenbaki absolututan 74.133 da, eta 97.977 miaketa egin zaizkie. Urdulizen, ireki zenetik irailaren 30 arte, 619 pazienteek jaso dute arreta eta 824 miaketa egin zaizkie.
- Orotara, arreta jaso duten pazienteen kopuruak gora egin du, % 7,96.
- Egindako lan-txandak 5433 dira, iaz egindakoen aldean % 7,96
- Jarduerak gora egin duen arren, bai itxaron-zerrendan dagoen paziente-kopurua denetara, bai zain egondako denborak gora egin du era esanguratsuan, aurreko urteari dagokionez. Igoera, batez ere, Bizkaian eta Araban izan da.

Itxaron-zerrendako pazienteen gorakadari dagokionez, komenigarria ikusten da aztertzea eta alderatzea beste zentro hitzartuetatik etorririko erresonantzia magnetikoaren jardueraren eboluzioa.

Ondoren, zuzendari-gerenteak Osakidetza Lan hitzarmenaren betetze-mailaren berri eman du. Horri dagokionez, daturik azpimarragarrienak hauek dira:

- 24 ordutik behera ospitaleratutako pazienteen % 95 hobetu da arreta emateko helburuaren betetze-maila, bai Bizkaian bai Gipuzkoan iazko epearekin alderatuta. Araban jasotako emaitzak, berriz, txarragoak izan dira.
- %100 betetzen da pazienteei arreta emateko helburua, ospitaleratuta 48 ordu baino gutxiago egon diren pazienteekin.
- Emaitza onak izan dira, Erresonantzia Magnetikoko txostena Osakidetzan erabilgarri jartzeko helburuari dagokionez, bai ospitaleratutako pazienteekin bai paziente ambulatorioekin.

2. Telelaguntza-zerbitzuaren jarduera.

Zuzendari-gerenteak telelaguntza-zerbitzuak egindako jardueraren berri eman du. Hauek dira emaitzarik garrantzitsuenak:

- Irailaren 30ean hau zen erabiltzaile-kopurua: 41.830
- Hilean, batez beste egondako gorakada, 850 alta ingurukoa da.
- Erabiltzaileen % 79 emakumezkoak dira.
- % 79,83k 80 urtetik gora dituzte.
- 85 urtetik gorako adinekoen estaldura % 34,84 da.
- Izaera sanitarioa duten deiek (Aholku sanitarioa, Aurretiko hitzordua) arreta emateko zentroan jasotako dei guztien % 8,94 dira.

Zuzendari-gerenteak adierazi du Telelaguntzako kontratu berriaren kontratazio publikoaren prozesua bukatu ondoren, urriaren 17an esleitu zela. Zerbitzuaren eredu berriaren berritasunetako bat da pertsona eskatzaileei alde aurretik balorazio bat egitea, benetako beharrak zehazteko, eta, horrela, zerbitzu pertsonalizatuagoa emateko.

Halaber, proposatzen da komeni ote den beste Erkidegoetan ematen den zerbitzuaren egoerarekin alderatzeko azterketa bat egitea.

3. Telemonitorizazioa.

Zuzendari-gerenteak adierazi du, telemonitorizazio-zerbitzua hornitzeko kontratua amaitzear dagoela eta zerbitzu hauekin beste kontratazio bat egin beharra dagoela, zerbitzu hori erabiltzen duten pazienteentzat, behintzat, hori guztia, Osakidetzak Osateki emandako kudeaketa-gomendioaren barruan.

Zerbitzua emateko gutxi gorabeherako kopurua, egungo pazienteak kontuan hartuta, 148.000 € + urteko BEZa da.

Kontseiluak adostu du Zuzendari-gerenteak azter dezala egoera Osakidetzako Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzarekin batera (OASD), telemonitorizazioaren inguruan dauden espektatibak egiaztatzeko.

OASDaren aldetik eragozpenik egon ezean, telemonitorizazioarekin jarraitzeko erabakia hartu da eta zuzendari-gerenteari baimena eman zaio dagokion kontratazio-prozedura martxan ipintzeko Osakidetzako eskakizunen arabera.

4. 2016ko diru-kontuen egoera. 2017ko inbertsioak.

Zuzendari-gerenteak diru-kontuen egoeraren berri eman du, irailaren 30ari dagokiona, hain zuzen ere. Atal honetako gairik esanguratsuena, gatazka kolektiboaren sententziari dagokiona da, berriki auzi-jartzailearen alde atera dena, 2010ean langileei egindako % 5eko soldata jaitsierari buruzkoa. Sententzia hau aplikatuta, hau da, pertsonal guztiarentzat soldaten taulak eguneratzeak eta 2015eko uztailaren 31tik hona kendutako kopuruak ordaintzeak pertsonalaren gastuetan dakar.

2017ko inbertsioei buruzko atalari dagokionez, legealdi honetarako Gobernu berriak dituen jarduera-planak ezagutu behar dira. Dena den, Kontseilu honek uste du egokia dela 2017an zentro eta erresonantzia magnetikoko tresnen eguneratze/berritze planarekin jarraitzea, Zuzendari-gerenteak aurkezten duen ekipo bakoitza instalatzeko, eguneratzeko dauden datei buruzko informazioaren arabera.

5. Kontratazioko barne-jarraibideak eguneratzea.

Zuzendari-gerenteak dio kontratazioari buruz zuzentarau berria dagoela –eta, Osakidetzako kontratazio-zerbitzuarekin koordinazioan hasiera eman zaiola kontratazioko barne-jarraibideak egokitzeari, jarraibide horietan arauketa adostu bati lotuta ez dauden kontratuen kontratazio-prozedura arautzen da, era horretan, gai horri dagozkion komunitateetako zuzendaritzetan araututako printzipio nagusiak bermatuko dira, eta baita ere ordenamendu juridikora pasatzea, eta Administrazio kontseiluan aurkeztea egokia bada, onartzeko.

Administrazio kontseiluak egun horretatik aurrera indarrean jarriko diren kontratazioko barne-jarraibideak eguneratzea onartu du, eta data horretatik aurrera hasten diren kontratazio-espeditenteei aplikatuko zaie.

6. Plantilla egituratzea eta lan-poltsaren deialdia egitea.

Adierazi da plantilla estrukturala onartu gabe dagoela oraindik Gobernu kontseiluan. Kontseiluak erabaki du, estaldurari dagokionez prozedura-kontuak aintzat hartu gabe onartu arte itxaron beharra dagoela.

Zuzendari-gerenteak hainbat lanbide-kategoriatan aldi baterako kontratazio-poltsak sortzeko prozeduraren egoeraren berri eman dio Kontseiluari, halaber, Erresonantzia Magnetikoaren probak egiteko eskariak izandako gorakadaren berri emango duten erradiologoak aurkitzeko zailtasuna ere adierazi du.

Kontseiluak proposatzen du irtenbide gisa, eskari gehien dagoen uneetan era puntualean, kanpoko erradiologoek txostenak egiteko modua aztertzea.

7. Euskara Plana.

Osatekeko gaur egungo Euskara Planaren berri eman du zuzendari-gerenteak, Zuzendaritzak 2015eko ekainean onartutako Plana ez zaio oraindik enpresa-batzordeari bidali.

Proposatu du aurrera egitea Plana berriro definitu eta ezartzeko, horretarako, Gobernuarekin eta Osakidetzarekin Euskara-Planak garatzeko eta ezartzeko lanean aritzen diren enpresen laguntzaren beharra ikusten du.

Kontseiluak, beharrezkoa ikusten du Osateken Euskara-Plana ezartzeko beharra.

8. Informazio-sistemak eguneratzeko proiektua.

Zuzendari-gerenteak Informazio-sistemetako egungo egoera azaldu du. Osatek abian jarri eta lehenengo urteetan zehar Ejie eta Ceinsa enpresek neurritz garatutako sistemak dira. 14 urtetan zehar mantentze-lanetarako soilik, erabili dira baliabideak, eta beharrezkoa da sistema hauek garatuta daudeneko plataforma teknologikoa eboluzionatzea eta prozesuak berriz ere modu egokian diseinatzea, Osatekek dauzkan beharrei behar bezalako erantzuna eman ahal izateko. Lehen ekintza gisa, azterlan bat egitea proposatu du, Osakidetzarekin koordinazio hobea izateko aukerarik egokienak aztertzeke.

Aholkularien bidez hainbat aukera eta irtenbide azaldu ondoren, adostu da Osatekeko Informazio-sistemei buruzko azterlana Osakidetzan (Osabide) integratzeari begira egotea, mantentzeko garaian efizientzia handiagoa izateko eta erabileran eraginkorragoa.

Kontseiluak erabaki du azterlana egin eta aztertutakoan Osabiden integratzeko proiektua ondoen araututakoarekin egitea aurrera, Osatekek bere jarduera kudeatzeko autonomia eta independentziarik galdu gabe.

9. Pazienteen gogobetetzeari buruzko inkestaren emaitzak aurkeztea

Zuzendari-gerenteak inkestaren emaitzen berri eman du, esanguratsuena da tratua, instalazioak, leialtasuna eta asebetetzea bezalako atalen helburuak lortu izana. Ez da lortu jarritako helburua, zerbitzuaren azkartasunari dagokionez.

Labur-labur azaldu dute Osatekeko egoera honako hauei buruz: ISO 9001:2015, ISO 14001:2015 eta Norma EKOSCAN.

10. 2016ko jarduera zientifikoa.

Zuzendari-gerenteak 2016an garatutako jarduera zientifikoaren berri eman du, esanguratsuena, honako hau da: 11 artikulua zientifiko, 4 komunikazio, hainbat ekitalditan saritutakoak eta 5 saio klinikotan parte hartu izana.

11. Galderak eta eskaerak

Zuzendari-gerenteak aditzera eman du 2017an Osatekeko 25.urteurrena izango dela, eta Kontseiluak ekitaldi bat antolatzea erabaki du zeinetan urte hauetan zehar Gizartearen ibilbidea aitortuko den.


Besterik ezean, arratsaldeko 16:00 direla, akta hau onartu eta hurrengo deialdira arte bukatutzat ematen zaio gaurkoari.

IDAZKARIA



Iz.: Susana López Altuna

PRESIDENTEA



Iz.: Guillermo Viñegra García